

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

453

EBAZPENA, 2026ko urtarrilaren 21ekoa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako lurralde-ordezkarirena. Honen bidez, Arabako Lurralde Historikoan, Iruraiz-Gaunako udalerrian «Sistema de almacenamiento eléctrico con baterías San Millán» proiektuari dagokion instalaziorako aurretiko administrazio-baimena eta eraikitze administrazio-baimena ematen da.

Espediente-zk. 01GEY 202500001.

AURREKARIAK

1.– 2025eko urtarrilaren 15ean, Eolicas De Euskadi SA enpresak aurretiko administrazio-baimena eta eraikitze administrazio-baimena eskatu zituen, «Sistema de almacenamiento eléctrico con baterías San Millán» proiektuari dagokion instalaziorako, Iruraiz-Gaunako udalerrian, Arabako Lurralde Historikoan.

2.– Proiektuaren xede den instalazioak sarbide eta konexio baimena du, Red Eléctrica de España SAUk 2024ko uztailaren 19an emana.

3.– 2025eko otsailaren 24an, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendariaren aurrean ingurumen-ebaluazio sinplifikatuaren espedientea zabaldu zen.

4.– 2025eko ekainaren 11n, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren Ebazpena argitaratu zen, zeinaren bidez Iruraiz-Gaunako (Araba) kokatutako eta Eólicas de Euskadi SA enpresak sustatutako Bat San Millán biltegitratze-sistemaren egikaritze-proiektuaren ingurumen-inpaktuaren txostena formulatzen den.

Ebazpen horrek, proiektuak ingurumenari eragin kaltegarri esanguratsurik ez izateko eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari lotu beharrik ez izateko, babes eta zuzenketa-neurriak ezartzen ditu, zeinak erantsita dauden 2025eko uztailaren 17ko EHAAn argitaratutako ebazpenean. Honako hauek dira neurri nagusiak:

1.– Ingurumen-integrazioa.

- Obrak eragindako azalera guztiak lehengoratzea.
- Konpentsazio-neurri gisa, espezie autoktonoekin landare-pantaila sortzea.

2.– Landa-ingurunearen babesa.

- Jabetza pribaturako erabilera baimena ematea, Herri Onurako mendietan.
- Aurretiazko txostena landa-bideetan jarduteko (6/1995 Foru Araua).
- Gereñuko Ureztatze Elkarteari kalteen jakinarazpena eta konponketa.

3.– Lurzoruaren babesa.

- Bideak balizatzea, baimendutako eremuetatik kanpoko zirkulazioa saihesteko.

- Ingurumen-eragileek zuinetak gainbegiratzea.
- Lurzoruaren mailaketa eta trinkotze alferrikakoa saihestea.
- Jatorrizko landare-geruza gordetzea eta lurzoruak kontrolpean pilatzea.
- Isurketen aurreko protokoloak eta kutsaduraren berehalako jakinarazpena.
- Profil edafikoa leheneratzea eta obren ondorengo berroneratze naturala.
- Lurzoruaren egoerari buruzko txostena (4/2015 Legea), jarduera kutsatzaile potentziala delako.

4.– Uraren babesa.

- Efluente kutsatzaileak minimizatzea eta jabari publiko hidraulikora isurtzea saihestea.
- Obrako hidrokarburoetarako material xurgatzailea.
- Ur kutsatuak biltzeko eta tratatzeko gailuak.
- Eremuan debekatuta dago hormigoi-makinak garbitzea.
- Makineria-parkea, zola iragazgaitza eta efluenteak biltzeko sistema dituen.

5.– Zarata.

- Jardunbide egokiak: ordutegiak mugatzea, makineria mantentzea.
- Araudi akustikoa betetzea (1367/2007 ED, 212/2002 ED, 213/2012 Dekretua).
- Eguneko ordutegia eta azterketa akustikoa, obrak > 6 hilabete badira.

6.– Kultur ondarea.

- Prospekzioa, mugimendu-kontrola eta balizak dituen proiektu arkeologikoa.
- Aurkikuntzen berehalako jakinaraztea (6/2019 Legea).

7.– Hondakinen kudeaketa.

- 7/2022 Legea eta araudi espezifikoak betetzea.
- Hondakinen bereizketa, nahasketak debekatzea.
- Eraikuntza-hondakinen kudeaketa (105/2008 ED, 112/2012 Dekretua).
- Erabilitako olioak 679/2006 EDren arabera.
- Hondakin arriskutsuentzako gune espezifikoak eta etiketatze egokia.

8.– Airearen kutsadura.

- Hautsa kontrolatzea, pistak ureztatuz eta pilaketak saihestuz garai lehorretan.

9.– Jardunbide egoki orokorrak.

- Okupazio-mugak kontrolatzea, zaratak/hautsak eragindako isurketak eta eragozpenak saihestea.

- Ezinbesteko gutxieneko eremuan obrak egitea.
- Azken garbiketa-kanpaina eta aldi baterako instalazioak kentzea.

10.– Jarduera uztea.

- Eraispena, obra-fasearen antzeko neurriekin, eta zaharberritze osoa.

11.– Ingurumen-aholkularitza.

- Obra-zuzendaritza, jardunbide egokiak kontrolatzeko eta ingurumen-jarraipena egiteko aholkularitza kualifikatuarekin.

5.– 2020ko martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuan aurreikusitakoa betez, zeinaren bidez arautzen baitira energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioak eraikitzeko, aldatzeko, ustiatzeko, transmititzeko eta ixteko administrazio-baimeneko prozedurak, baita hornidurak, zuzeneko lineak eta kontsumitzaileen konexio-instalazioak ere, proiektu hori jendaurrean jarri da.

Horretarako, informazio publikoaren izapidearen barruan, iragarkia argitaratu zen; 2025eko uztailaren 9ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta 2025eko uztailaren 28ko Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean.

Informazio publikorako izapidearekin aldi berean, honako administrazio publiko, erakunde eta ondasun edo zerbitzu kaltetuei lotutako enpresei kontsultak egin zitzaizkien:

2025eko uztailaren 9an:

- URA: Uraren Euskal Agentzia.

2025eko uztailaren 17an:

- Iruraiz-Gaunako Udala.
- Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saila – Errepide Zerbitzua. Arabako Foru Aldundia.
- Nekazaritza Zuzendaritza. Arabako Foru Aldundia.

Kontsulten izapiderako ezarritako epearen barruan, Iruraiz-Gaunako Udalaren txostena jaso zen 2025eko abuztuaren 7an. Sustatzaileak txosten horri erantzun zion, eta Iruraiz-Gaunako Udalaren erantzuna 2025eko azaroaren 5ean sartu zen.

Txosten horrek Ingurumen Organoak emandako ingurumen-inpaktuaren txostenean jada aurreikusitako baldintzak jasotzen zituen. Era berean, baterien sisteman gerta litezkeen suteei edo muturreko beroketa ihesei aurrea hartzeko eta horien aurrean jarduteko prebentzio neurriak zehaztea ezartzen zuen, larrialdi zerbitzuekin koordinatutako Autoprotekzio Plan espezifiko baten bidez.

Kontsulten izapiderako ezarritako epea igarota, honako txosten hau jaso zen:

- Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzuaren txostena. Txostenean jasotzen denez, instalazioa A 4139 errepidearen galtzadaren kanpoaldeko ertzetik gutxi gorabehera 300 metrora kokatzea aurreikusten da; beraz, kokaleku hori errepidearen eragin eremu ofizialetik kanpo dagoela adierazten da.

2026ko urtarrilaren 30a, ostirala

– URA – Uraren Euskal Agentziaren txostena. Txostenean ezartzen da proiektatutako instalazioak ez duela ibai-ibilguan edo -ekosisteman eragin esanguratsurik sortuko.

Sustatzaileak ez du bi txosten horien aurkakotasunik adierazi, eta, ondorioz, haien edukiarekin bat datorrela ulertzen da.

Era berean, Ingurumen Organoak egindako kontsulta-prozeduratik eratorritako txostenak sustatzaileari helarazten zaizkio, proiektuaren ingurumen-ebaluazio sinplifikatuaren espedientean. Txosten horiek ingurumen-inpaktuaren txostena formulatzeko ebazpena eman ondoren jaso ziren.

Txosten hauek jaso ziren:

– Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza sailaren txostena.

– «Confederación Hidrográfica del Ebro»ren txostena.

Txosten guztiak sustatzaileari bidali zitzaizkion, haren jakinaren gainean egon zedin eta zegozkion ondorioetarako.

ZUZENBIDE OINARRIAK

1.– Arabako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren lurralde-ordezkaritza da espediente hau izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna, hala xedatzen baita Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren 20. artikuluan.

2.– Espedientea izapidetzerakoan, honako arau hauetan ezarritako izapideak bete dira: 24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektrikoari buruzkoa; 1955/2000 Errege Dekretua, abenduaren 1ekoa, Energia elektrikoko instalazioen garraioko, banaketako, merkaturatzeko eta hornidurako jarduerak eta baimen-prozedurak arautzen dituen; Eusko Jaurlaritzaren 48/2020 Dekretua, martxoaren 31koa, zeinaren bidez arautzen baitira energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa, eta 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.

Iruraiz-Gaunako Udalak egindako eta udal-entitate horretako alkateak 2025eko azaroaren 4an izenpetutako txostenean jasotako irizpenak aintzat hartuta, ondorioztatzen da Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak egindako ingurumen-inpaktuaren txostenak barne hartzen dituela udalak proposatutako neurriak.

Baterien instalazioa ST San Millán 220/30 kV azpiestazioaren barruan gauzatuko denez, Azazeta Parke Eolioaren ebakuaziorako proiektatutakoa eta Aixear SAREN titulartasuneko den azpiegitura, sustatzaileak azpiestazio horren titularrari jakinaraziko dio, hala badagokio, babes planaren barruan integratzeko, azpiestazioan egoki integratzeko eta koordinazio operatiboa behar bezala bermatzeko.

Aipatutako lege-xedapenak ikusita, eta oro har zein zehazki aplikagarri diren gainerakoak oinarri hartuta, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako lurralde-ordezkariak

EBAZTEN DU:

1.– Eolicas De Euskadi SARI aurretiko administrazio-baimena eta eraikitzekeko administrazio-baimena EMATEA Arabako Lurralde Historikoan, Iruraiz-Gaunako udalerrian «Sistema de almacenamiento eléctrico con baterías San Millán» proiektuari dagokion instalaziorako.

2.– Proiektuak, oro har, honako instalazio hauek hartzen ditu barne:

a) 72 litio burdin fosfato bateriaren rack-a, guztira 24,773 MWh-ko energia biltegitratze gaitasunarekin (4 orduko autonomia), eta baterietan 6,193 MW-ko potentzia instalatua.

b) Bi inbertsore, guztira 6,454 MVAko potentzia nominalarekin, 690 V-ko tentsio nominala dutela, eta inbertsore bakoitzeko 3,227 MVA-ko potentzia unitarioa.

c) BT/MT 6,454 MVA-ko transformadore bat, 0,690/30 kV-ko erlazioarekin, baita hari lotutako linea- eta babes-zelulak ere.

d) Babes, neurketa eta zerbitzu lagungarrien zentro bat. 500 kVA-ko zerbitzu lagungarrien transformadore bat, 30/0,42 kV-ko erlazioarekin.

e) 85,56 m neurtzen dituen 30 kV-ko ebakuazio-linea, lurpeko zatian, CS BAT SAN MILLÁNetik ST SAN MILLÁN 220/30 kV-raino.

Ebazpen hau ematen da, baldintza orokor hauek kontuan hartuz:

1.– Onartutako proiektuari jarraikiz egin beharko dira obrak, kasu bakoitzean eskatu eta baimenduko diren aldaketekin.

2.– Halaber, betearazi egingo dira Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2025eko ekainaren 11ko Ebazpenaren bidez formulatutako proiektuaren ingurumen-inpaktuaren txostenak ezarritako baldintzak, 2025eko uztailaren 17ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 135. zenbakian argitaratua, aplikatzekoa den araudi teknikoa eta administrazio eskudunak onartutako enpresa banatzailearen arau partikularrak.

3.– Martxan jartzeko epea hiru urtekoa izango da, ebazpen hau ematen den egunetik aurrera. Epe hori igarota, ez bada instalazioa ustiatzeko baimenik eskatu, ebazpen hau iraungitzat jo ahal izango da.

4.– Instalazioen titularrak, proiektua gauzatu ondoren eta arauzko egiaztapenak egin ondoren, obrak amaitu direla jakinaraziko dio Arabako Lurralde Ordezkaritzari, hark ustiatzeko eta martxan jartzeko baimena eman dezan. Horrekin batera, aplikatu beharreko erregelamendu teknikoetan adierazten den dokumentazioa aurkeztuko du.

5.– Ebazpen hau ematen da, hargatik eragotzi gabe eta edozein direla ere obrak egiteko beharrezkoak diren udal- eta probintzia-eskumen edo bestelako baimenak eta lizentziak, eta eskatzaileak nahitaez eskuratu beharko ditu baimen horiek guztiak. Era berean, hirugarrenen eskubideak kaltetu gabe emango da, jabetza-eskubidea salbu utzita.

Dagokion baimen, lizentzia edo bestelako baimenen izapidetze-prozesuaren ondorioz, edo sustatzaileak onartutako baldintza teknikoak betetzearen ondorioz, egikaritze-proiektuan aldaketa esanguratsuak sortuko balira, edo aldaketa horiek ingurumen ebaluazioaren mende jarri beharko liriatekeela zehaztuko balitz, dagokion baimena eskatu beharko da.

6.– Jarduera behin betiko eteteko, aldez aurretiko itxiera-baimen administratiboa beharko da. Horretarako, eskaera aurkeztu beharko da, eta, harekin batera, justifikazio-memoria, eguneratutako planoak eta instalazioaren eraisteko plana. Azken hori ingurumen-inpaktuaren txostenean ezarritako baldintzetara egokitu beharko da, eraiste-fasean ingurumena lehengoratzeari dagokionez.

2026ko urtarrilaren 30a, ostirala

Ebazpen honek ez dio administrazio-bideari amaiera ematen, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtoa jar dakioko Deskarbonizazio zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, eta hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta hurrengo artikuluen arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urtarrilaren 21a.

Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako lurralde-ordezkarria,
JAVIER AIZPURU OCHOA DE ERIBE.